

5. Kanalak

Guk erabiliko dugun banaketa kanala online motatakoa da, hau da, interneta zeren eta hortik gure bezeroak gure aplikazioa instalatu ahalko dute. Enpresa batek gure berri izan ondoren batzar bat finkatu nahi badute, guri deitu eta finkatuko genuke. Erosketa momentuan prezioa argudiatuko dugu, eta produktua guk beraien aparkamenduetan instalatuko dugu.

Bestalde aplikazioaren erabileen iritziak entzungo ditugu. Erabiltzaileen feedbacka oso garrantzitsua izango da iradokizun eta kezak etorkizuneko hobekuntzak baloratzeko baliagarriak izango baitira

Kanalen bitartez lortzen dugu gure produktua merkatu-segmentuetara iristea, gure balio-proposamena helarazteko.

Komunikazio-kanalak gure produktua (*Park Phone*) ezagutarazteko erabiliko ditugu. Youtuben egingo dugu gure produktua esagustaratzea, frogatuta baitago pertsona gehienek denbora asko kontsumitzen dutela plataforma horretan eta gero eta gutxiago ikusten dutela telebista. Gu enpresetara eta erakundeetara joango gara gure zerbitzuak eskaintzera (aparkalekuko instalazioak), beraren parkinen trafikoa hobetuko dela eta langileak pozago egongo direla esanez.

Banaketa-kanalak: internet izango da, mugikorrerako aplikazio bat dugu eta harekin arazoak badituzu, guk gure online zerbitzuekin lagunduko dizugu.

Salmenta-kanalak: Gure kanala Internet izango da, aplikazioa Play store bidez instalatuko baita. Enpresa eta udalei bilerren bidez salduko diegu gure zerbitzua. Bilera hauek gure bulegoetan edo eroslea proposatzen duen lekuan ahurrera eramango dira.

Pertzepzioa: merkatu ikerketa bat egin genuen eta horretarako inkesta bat zabaldu genuen biztanleriaren artean eta gehienek esan zuten oso lagungarria izango litzatekeela aparkalekuak bilatzen lagunduko duen aplikazio bat edukitzea, aparkalekurik aurkitu ezean auto-ilara handiak eta frustrazioa saihesteko.

Ebaluazioa: Zuekin harremanetan egongo gara akatsen berri emateko eta komunitate osoaren artean aplikazioa pixkanaka hobetzen joateko, pertsona gehiagorengana iritsiz eta gure zerbitzuak zabalduz.

Erosketa: Egin genuen inkestan esan genizuen denok nahiago duzuela produktua doain izatea, baina iragarkiekin, beraz, ez duzue aplikazioa erosi beharko.

Entrega: Lehen esan dudan bezala, doain eta online emango dugu zerbitzua; beraz, aplikazioa Play Storetik deskargatu besterik ez duzue egin beharko.

